

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

5504

242/2016 DEKRETUA, abenduaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Energiaren Euskal Erakundearen Zuzendaritza Batzordean duen kide bat kargutik kendu eta berria izendatzeko dena.

Energiaren Euskal Erakundea eratzeke azaroaren 24ko 9/1982 Legearen 8. eta 9. artikuluetan xedatuta dagoenez, Zuzendaritza Batzordean lehendakaria eta erakundearen menpeko sozietateetako lehendakariak ez ezik, bost kontseilari ere izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari jardungo dutenak. Gainera, beste kide batzuk ere izango ditu batzordeak, energia edo industriaren eremuan izen ona duten pertsonen artean izendatuak.

Lege hori oinarri hartuta, martxoaren 12ko 177/2013 Dekretuaren eta ekainaren 7ko 131/2015 Dekretuaren bitartez, partez berritu ziren, azkenengoz, Euskal Autonomia Erkidegoak Energiaren Euskal Erakundearen Zuzendaritza Batzordean dituen kideak. Hala ere, momentu honetan eta Euskal Energiaren Erakundearen Zuzendaritza Kontseilua partez berrituko denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkarietako bat kargutik kendu eta haren ordezkari beste bat izendatu behar da.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2016ko abenduaren 20an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Pilar Urruticoechea Uriarte andrea kentzea Energiaren Euskal Erakundean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari duen kontseilari kargutik.

2. artikulua.— Iñigo Ansola Kareaga jauna izendatzea Energiaren Euskal Erakundeko kontseilari, Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari izan.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak kargu uzteari dagokionez, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izendapenari dagokionez.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko abenduaren 20an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.